

Eduard Estivill eta Montse Domenech
Lotara joan aurreko ipuinak
Itzultzaileak: Miren Arratibel eta Aintzane Atela
Elkar
Donostia, 2005

Ipuinek umeentzako sendagai izan nahi dutenean

Ipuinaren generoa oso zabala da, eta tankera askotako kontakizunak sartzan dira haren baitan. Ipuina umeekin erlazionatzen denean, ordea, ia ipuin mota bakar bat etorri ohi da gogora: ipuin tradizionala, hartzen duen izena hartzen duela (herri ipuina, maitagarri ipuina, eta abar). Gizateriaren hasierarekin batera sortutako mitoetatik eratorriak, mendeetan zehar aho askotatik pasatuta leun biribilak iritsi zaizkigun horietan. Heroi ausart bakartiak izaten zituzten protagonista, bidean aurkitutako zoritxar orori aurre egin eta gainditu egiten zutenak; bidaiatik bueltan behialako haurtzaroa gainditu eta heldutasun betean azaltzen zitzaizkigunak.

XX. mendearen bigarren erdian ahots batzuk entzun ziren haien aurka: ipuin haiek erregerreginez, gaztelu eta jauregiez mintzatzen ziren, eta emakumeak objektu rol soila omen zuten; gainera krudelak ziren, eta umeen ikaragarri. Gaurkotu behar larria omen zegoen.

Bi erantzun erraldoi izan zituen kritika hark. Lehena, Estatu Batuetatik, Bruno Bettelheim psikoanalistarena: dauden daudenean, ipuin tradizionalak makina perfektuak dira, ezer ez faltan, ezer ez sobran. Eta halako efektu katartiko sendagarri eragiten dute umeengan. Bigarrena, Italiatik, Gianni Rodari: ipuin horietatik abiatuta era guztietako jolas fantastikoak egiteko proposamen teoriko-praktikoak.

Estivill eta Domènech idazle katalanak umeen loaren disfunzioetan adituak dira, eta gai horren inguruko liburu arrakastatsuak idatzi dituzte. Azkena, gaurkoan aipagai dudan ipuin bilduma mardul hau. Loarekin ez ezik, umeek dituzten era guztietako arazoak gainditzen laguntzeko idatziak omen dira: gaizki jaten dutenak, gurasoak banatuak dituztenak, bakartiak direnak eta ausartegiak direnak... Ez naiz purista jarriko, eta helburu instrumentalak dituzten ipuinak baztertu behar direla esaten hasiko. Esango dut, soil-soilik, bildumako ipuin asko eta asko ez direla ipuin, egoera jakin baten kontakizuna baizik. Eta ustezko protagonistak ez direla benetako aktanteak, rol pasiboa jokatzan duten umeak baizik: egoera berri bat aurkezten zaie, eta besterik gabe onartzen dute (askotan kexarik ere egin gabe), eta horrexetan dautza bukaera zoriontsuak, egoera berriak pasiboki onartzean. Salbuespenak badira, noski, gehienetan ipuin tradizionaletatik hartu eta aldatuak dauden kontakizunetan. Horietan bai, ume protagonistak heroiak dira, gatazkaren bati aurre egin behar diote, eta azkenean gainditu egiten dute. Edonola ere, bildumak desoreka nabarmenak erakusten ditu.

Itzulpena egiteko lanean, egile-bikotari erantzunez, itzultzaile-bikote bat aritu da, txukun.

Manu Lopez Gaseni